“Kulturartekotasun txangoak” ekimena antolatuko du Bor-bor elkarteak, bigarrenez

Maiatzaren 28an izango da udaberriko irteera. Egitasmoaren helburua etorriberriei Aiaraldea ezagutaraztea da, saretu eta ahalduntzearekin batera.

Bor-Bor elkarteak bigarrenez egingo du “Kulturartekotasun txangoak” proiektua. Iaz abiatu zuten egitasmoa Amurrio eta Laudioko EPA zentroekin elkarlanean, bi irteera antolatuta: maiatzean Maroñoko urtegira joan ziren, eta urrian Orozkora. Hala, tokiko emakume ekoizleen lana ezagutu eta dastatzeko aukera izan zuten, ingurune geografiko-soziala zabaltzearekin batera. Programaren helburua etorriberrien komunitatea saretu eta ahalduntzea da, feminismotik eta euskaraz. Horretarako, kulturartekotasun bidaia bat da Bor-bor elkarteak planteatzen duena, autobusetik abiatuta. Hain zuzen, Amurrio eta Laudio herriak bilakatu dituzte topaleku edo abiapuntu, handik eskualdeko paisai ederrak erakusteko kultura anitzetako kideei.

Artziniega geltoki
Artziniega izango da 2026ko lehenbiziko helmuga. Maiatzaren 28an egingo dute horretarako txangoa, eta izen-ematea zabalik dago (borborelkartea@gmail.com helbidean edota Amurrio zein Laudioko EPA zentroetan).

Artziniegako bisita, gainera, Oihane MG “Marratik at” ilustratzaileak gidatuko du, bere herria eta ibilbidea partekatzeaz gain, elkar ezagutzeko eta espazio artistiko eta informalak uztartuz. Hala, esperientziaren aniztasun eta aberastasuna ilustrazio bidez islatuko du gerora. Horrez gain, “kulturartekotasun pintxoak” ere egongo dira, aurreratu dutenez.

Ekimena doakoa da partaideentzat, Arabako Foru Aldundiaren eta Laia Eskolaren babesari esker gauzatuko dute.

Hemen ikus daitezke iazko edizioko irudiak:

- KULTURARTEKOTASUN TXANGOAK (Maiatzak 29)
- Kulturartekotasun txangoak (Urriak 30)



B

BOR-BOR ELKARTEA

KULTURARTEKOTASUN TXANGOAK

رحلة ثقافية مشتركة

Excursiones interculturales

Maiatzak 28, osteguna

10:00 LAUDIOko EPAtik irteera

10:15 AMURRIO (San Joseko bus parada)

- ARTZINIEGA bisita (Marratik at)

- KULTURARTEKOTASUN PINTXOAK

12:30 BUELTA (Artziniega-Amurrio-Laudio)

13:00 AMAIERA

- Doako jarduera -

araba álava
foru aldundia diputación foral

EPA LAUDIO AMURRIO

Laia

EEGA